



2018KO IRAILAREN 18AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK ONDOAN ETA OSOKI IDATZIRIK AGERI DEN AKORDIOA ONARTU DU.

➤ IDAZKARIEN BEHIN BEHINEKO KONTRATAZIORAKO LAN POLTSA 2018: EPAIMAHAIK EGINDAKO PROPOSAMENA ONARTU.

Hautapoben bidez izangaien zerrenda bat osatzeko, aldi baterako eta administrazio-araubidean Etxarri Aranazko udaleko idazkari lanpostua betetzeko eta etorkizunean ordezkapenak bideratzeko prozesua bukatu da.

Epaimahaiak aurkeztutako emaitzen akta irakurri eta azken emaitzen berri ematen da:

Prozedura guztia amaitu eta deialdiaren oinarriek diotenaren arabera izangaiek guztira lortutako puntuaketa hau da:

| | Teori koa | Lehia keta | Prakti koa | Puntuaketa guztira |
|---------------------------|--------------|---------------|---------------|--------------------|
| Amaia Elkano Garralda | 23,00 | 8,79 | 21,50 | 53,29 |
| Lola Eslava Serrano | 20,00 | - | 22,00 | 42,00 |
| Beñat Ripodas Beroiz | 25,00 | - | - | 25,00 |
| Oihan Castro Ansa | 24,00 | - | - | 24,00 |
| Joaquin Lizarraga Sanz | 23,00 | | | 23,00 |

Emaitzak ikusirik eta udal idazkaria ordezkatzeko dagoen premia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Epaimahaiak behin behineko kontratazioak egiteko proposatutako izangaien zerrenda onartzea.
- 2.- Amaia Elkano Garralda kontratatzea puntuazio altuena duen izangaia baita.
- 3.- Jakinaraztea lanpostuan sartu beharko dela 7 eguneko epean gehienez ere, Administrazio kontratugilearen proposamena onartzen duen egunetik hasita. Epe horretan lanean hasiko ez balitz, nahiko justifikatutako kasuetan izan ezik edota plaza berriz hutsik geratuz gero, organo eskudunek hautespen prozesuan lortutako puntuazio onenaren hurrenkerari jarraikiz izangaia kontratatu ahalko ditu, eskaintako kontratazioarekin ados daudela adierazten dutenak.
- 4.- Akordio hau izangaiei jakinaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

.Hauxe jakin erazten dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, oharteraziz aipatu erabaki honen (edo ebazpen, Alkatetzaren dekretu, etabarren) kontra helegite hauetako bat paratzen ahalko da:a) **BERRAZTERTZEKO** helegitea ebazpena eman duen organuari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita HILABETE BATEKO epean.-b)- **ADMINISTRATIOAREKIKO** helegitea, Nafarroako Auzitegi Nagusian dagokion sailari zuzendua, edo Administrazioarekiko Epaitegiari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita BI HILABETEKO epean.- c)- **GORA JOTZEKO** helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETE BATEKO epean, ebazpen hau jakinarazten denetik hasita.

Etxarri Aranatz, 2018ko irailaren 18an

Alkatea/ Eneka Maiz Ulaiar

Idazkariordea/ Imanol Goñi Razquin

